

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA

Bilbon, 2020ko uztailaren 27an

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2020ko uztailaren 21eko datarekin, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

BATZORDEKIDEAK

Javier Marqués Gonzalez jauna, EEEko zuzendari teknikoa.

Rosa Madina Romero andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria.

Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia.

Carlos Aguirre Arana jauna, EEEko G.B. eta Z.O.ko zuzendaria, Enrique Monasterio Beñaran jaunaren ordeaz, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria eta Kontratazio Batzordearen Presidentea dena, bertaratu ezina adierazi duena.

Monasterio jaunaren bertaratze ezina dela eta, presidente gisa jardungo du Marqués jaunak.

Halaber, Iker Alaña Zorrilla jaunak, kontratazio batzordeko idazkariak, bertaratze ezina adierazi du. Alaña jaunaren bertaratze ezina dela eta, Colón Jaunak idazkari gisa jardungo du.

Gai-zerrenda jorrazteko, honako eduki hauen arabera:

1. *Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.*
 - *ERG/20/002. EUSKALSIS - EUSKAL SARE SISMOAREN DATUAK DISEINATU, HEDATU, GAUZATU ETA ARGITARATZEKO ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA.*
 - *DIRTEC/20/002. Eusko Jaurlaritzaren hainbat Sailen 41 eraikinetan energia auditoriak eta ziurtapenak egitea, eta jarduketa planen zirriborroa egitearen kontratua.*
 - *COM/20/001. EAEko irrtati-kate ezberdinetan energia aurrezteko aholkuen iragarki laburren emisioa kontratatzeako kontratua.*
 - *ESG/20/002. Ordenagailu pertsonalak eta funtzio anitzeko inprimaketa-ekipoak hornitzeko eta mantentzeko kontratua.*
2. *Kontratu txikien zerrenda.*
3. *Beste gai batzuk.*
4. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. **Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.**

Batzordekideek, kontratuaren arduradunak aurkeztutako memoria justifikagarria eta honi dagokion Klausula Administratibo Berezien Agiriak (KABA) eta Zehaztapen Tekniko Partikularrenak aztertu dituzte, honako kontratazio espediente hauei lotuta:

- *ERG/20/002. LIDAR teknologiaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko kartografia geologikoa berrikustea, eguneratzea eta egitearen kontratua.*
- *DIRTEC/20/002. Eusko Jaurlaritzaren hainbat Sailen 41 eraikinetan energia auditoriak eta ziurtapenak egitea, eta jarduketa planen zirriborroa egitearen kontratua.*
- *COM/20/001. EAEko irrati-kate ezberdinetan energia aurrezteko aholkuen iragarki laburren emisioa kontratatzeko kontratua.*
- *ESG/20/002. Ordenagailu pertsonalak eta funtzio anitzeko inprimaketa-ekipoak hornitzeko eta mantentzeko kontratua.*

Batzordekideek egiaztatzen dute bi dokumentu horiek, kontratazio espedienterako beharrezkoak direnak, SPKLen aurreikusten diren baldintzak betez egin direla, eta kontratazio organoari bidaliko zaizkio, SPKLen 117. artikulua aplikazioari jarraituz, egokitzat jotzen baldin badu, ebazpen arrazoitua eman dezan, kontratazio espedienteak onartuz eta lizitazio prozeduraren hasierari ekinez.

2. Kontratu txikien zerrenda.

Batzordekideei EEEK esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie, Kontratazio Batzorde honen azken bileratik hona egindakoak, hain zuzen ere.


3. Beste gai batzuk.


Ez da beste gairik izan.

4. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan EEE ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEko Kontratazio Batzordeko presidentek eta idazkariak izenpetu dute.


Javier Marqués Gonzalez jn.
Kontratazio Batzordeko presidentea


Álvaro Colón Barriocanal jn.
Kontratazio Batzordeko idazkaria